

Euskal AEko txikizkako merkataritzako salmentak % 2,5 igo dira 2025eko lehen hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, salmentak % 0,4 igo dira

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2025eko lehen hiruhilekoan, salmentak % 2,5 igo dira, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, egutegiaren eraginak kenduta eta prezio finkoetan. Salmentak, urte artean, % 2,3 igo dira, gasolindegia kontuan hartu gabe.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, dagozkion urtaro-ondorioak kenduta, salmenta-indizea % 0,4 igo da 2025eko lehen hiruhilekoan.

Euskal AEko txikizkako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa (%)

Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Txikizkako merkataritzaren indizea (BMIt)

2024ko hiruhileko beraren aldean, prezio finkoetako salmentak % 3,4, % 1,1 eta % 4,7 igo dira, hurrenez hurren, Elikaduran, Gainerako produktuetan eta Automobilgintzarako erregaiaren sektorean.

2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, urtaroen eragina kenduta eta prezio finkoetan, Automobilgintzarako erregaiaren salmentek % 5,0ko hazkundera izan dute; Elikagaien eta Gainerako produktuen salmentek, berriz, % 0,3 eta % 1,0 egin dute behera, hurrenez hurren.

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2025/I

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / At-4
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	2,5	0,4	2,5
Araba/Álava	3,5	1,3	3,5
Bizkaia	2,1	-0,1	2,1
Gipuzkoa	2,7	0,5	2,7
Indize orokorra sektorearen arabera			
Janariak	3,4	-0,3	3,4
Elikagaien saltoki espezializatuak	3,4	0,4	3,4
Elikagaiak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	3,4	-0,8	3,4
Gainerako produktuak	1,1	-1,0	1,1
Pertsonaren ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	0,0	-0,8	0,0
Etxearen ekipamenduan espezializatutako establezimenduak	2,9	0,8	2,9
Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako establezimenduak	4,1	0,2	4,1
Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak	-3,0	-0,8	-3,0
Automoziorako erregaia	4,7	5,0	4,7
INDIZE OROKORRA gasolindegirik gabe	2,3	-0,6	2,3
Langileria-indizea			
Euskal AE	0,0	-0,2	0,0

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urtean arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestacionalizatuak

At/At(t4) Lehen hiruhilekotik behatutako azkenekora arte metatutako aldiko urte arteko tasa (At) aurreko urtean metatutako aldi beraren aldean

Data 2025eko Maiatzaren 9a

Iturria: Eustat. Txikizkako Merkataritzaren Indizea (BMIt)

Elikaduraren sektorean, 2024ko lehen hiruhilekoaren aldean, salmentak % 3,4 hazi dira, bai *Elikaduran*, *edarietan eta tabakoan espezializatutako merkataritzan* (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak eta abar), eta bai *Elikagaiak*, *edariak eta tabakoa nagusi diren merkataritza ez-espezializatuan* ere (batez ere supermerkatuak eta hipermerkatuak).

Gainerako produktuen salmentei dagokienez, *Pertsonen ekipamenduan espezializatutako* sektorean (arropa, oinetakoak, produktu kosmetikoak edo higienekoak) salmentek ez dute aldaketarik izan urte batetik bestera. *Etxeko ekipamenduan espezializatutako* sektorean (etxetresna elektrikoak, altzariak eta telekomunikazio-ekipoak barne), aldiz, % 2,9 hazi da. *Kontsumoko beste ondasunetan espezializatutako* sektorean ere (besteak beste, kirol-gaiak, jokoak edo jostailuak) salmentak % 4,1 hazi dira. Bestalde, *Gainerako produktuak nagusi diren establezimendu ez-espezializatuak* (korrespondentzia edo Internet), salmentak % 3,0 jaitsi dira.

2025eko lehen hiruhilekoko txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak urte arteko igoera izan du hiru lurralde historikoetan. Araban indizea % 3,5 igo da, Gipuzkoan % 2,7 eta Bizkaian % 2,1.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten bilakaera ere positiboa izan da Araban eta Gipuzkoan: % 1,3 eta % 0,5 igo dira, hurrenez hurren. Bizkaian, aldiz, salmentek % 0,1 egin dute behera hiruhileko batetik bestera.

2025eko lehen hiruhilekoan, Euskal AE osoan, txikizkako merkataritzaren sektorean landunen kopurua ez da aldatu aurreko urteko lehen hiruhilekoaren aldean. 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, ordea, enpleguak % 0,2 egin du behera.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtaroen ondorioak kendutako serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren % **97,22ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62